

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

4102

EBAZPENA, 2016ko irailaren 9koa, Administrazio eta Lurralde Plangintzako sailburuordearena, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko ekainaren 1eko Aginduan aurrez ikusitako laguntzen emakida ebatzi eta argitara ematen duena. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta Arabako udalerrien kontzejuei diru-laguntzak emateko deialdia egin eta oinarri arautzaileak ezartzen dira, paisaiarako ekintza-planak presta ditzaten.

2016ko ekainaren 9an, 109. zenbakiko EHAA-n argitaratu zen 2016ko ekainaren 1eko Agindua, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta Arabako udalerrien kontzejuei diru-laguntzak emateko deialdia egiten baita eta oinarri arautzaileak ezartzen baitira, paisaiarako ekintza-planak presta ditzaten.

Eskaerak aurkezteko epea uztailaren 9an amaitu zen, aipatutako aginduaren 7.1. artikuluan ezarritakoaren arabera. Horrela izanik, 22 eskaera egin dira, baina horietako batean atzera egin du partikular batek. Eskaera hauek egin dira:

	Udala	Proiektuaren titulua
1	Agurain	Periferiako PEP (paisaiarako ekintza-plana)
2	Samaniego	Matarredoko PEP, antzinako upategiak
3	Arrazua-Ubarrundia	Langara Ganboako PEP
4	Urizaharra	Urizaharreko PEP
5	Vitoria-Gasteiz	Jundizko industrialde-ingurune PEP
6	Abanto Zierbena	Gerente putzuko meatze-paisaiarako ekintza-plana (PEP)
7	Arrieta	2 begiratoki Sollube mendian
8	Balmaseda	Gazteluaren muinoko PEP kulturala
9	Bermeo	Tonpoiko PEP
10	Etxebarri	Sare berdeko PEP
11	Ugao	Ibai-paisaiarako ekintza-plana (PEP)
12	Zierbena	Kostaldekoko eta gailurretako paisaiarako ekintza-plana (PEP)
13	Gatika	Butroi ibaiaren ibarreko PEP
14	Durango	Sare berdeko PEP
15	Orio	Orioko udalerriko PEP
16	Oiartzun	Karrikako haraneko PEP
17	Zegama	Aizkorriko atariko PEP
18	Itsasondo	Arbelaren PEP: Malkorra-Izarre
19	Elgoibar	Moru-Olaso-San Pedroko PEP
20	Deba	Deba ibaiko eta ibaiertzeko PEP
21	Leintz-Gatzaga	Leintz-Gatzagako PEP

Diru-laguntza hauek arautzen dituen 2016ko ekainaren 1eko Agindu horretako 9.1. artikuluan xedatutakoarekin bat, irailaren 1ean horretarako balorazio-epaimahaia eratu zen, hartutako eskaerak aztertu eta egiaztatzeko xedeaz, kontuan hartuta artikuluko horretako 2. atalean xedatutakoa, hau da, esleipenerako irizpideak eta gehieneko puntuazioa.

2016ko ekainaren 1eko Agindu horren 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, guztira 280.000 euro bideratuko dira diru-laguntzak emateko. Bestalde, 13. artikulua zehazten du diruz lagunduko dela paisaiarako ekintza-planak idazteko ordainsarien % 90, plan bakoitzerako 30.000 euroko gehieneko muga jarrita, aurrekontuko kreditua amaitu arte, eta ezin izango direla diruz lagundu ez BEZa ez bestelako zergak.

Epaimahaiak, proposamenak aztertu eta egiaztatu ostean, ondorio gisa, 2016ko irailaren 7an, 9.3. artikuluan xedatutakoari erreparatuta, sailburuordeari aurkeztu zion esleipenerako proposamena, non adierazten duen zein den diruz laguntzeko diren eskabideen lehentasuna, kontuan hartuta I. eranskinean adierazitako puntuazioa, barnean hartuta zein udal edo kontzeju den onuraduna, zein den diruz lagun daitekeen proiektua eta zenbatean laguntzea proposatu den. Halaber, aipatutako proposamenean zerrendatzen dira ukatzeko diren eskaerak, zergatik ukatzen diren adierazita.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko ekainaren 1eko Aginduaren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta Arabako udalerrien kontzejuei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen baitira eta horretarako deialdia egiten baita, paisaiarako ekintza-planak presta ditzaten, eta horretarako eratutako balorazio-epaimahaiak proposatutakoa ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Paisaiarako ekintza-planak idazteko diru-laguntzak ematea ondoren zerrendatutako udalei eta kontzejuei, adierazitako zenbatekoan:

	Udala	Proiektuaren titulua	Proposatutako zenbatekoa
1	Ugao	Ibai-paisaiarako ekintza-plana (PEP)	27.000,00 €
2	Balmaseda	Gazteluaren muinoko PEP kulturala	23.400,00 €
3	Oiartzun	Karrikako haraneko PEP	16.200,00 €
4	Vitoria-Gasteiz	Jundizko industrialde-ingurune PEP	23.251,50 €
5	Abanto Zierbena	Gerente putzuko meatze-paisaiarako ekintza-plana (PEP)	28.800,00 €
6	Arrazua-Ubarrundia	Langara Ganboako PEP	15.516,00 €
7	Zierbena	Kostaldeko eta gailurretako paisaiarako ekintza-plana (PEP)	20.250,00 €
8	Samaniego	Matarredoko PEP, antzinako upategiak	14.310,00 €
9	Gatika	Butroi ibaiaren ibarreko PEP	11.880,00 €
10	Durango	Sare berdeko PEP	25.200,00 €
11	Zegama	Aizkorriko atariko PEP	23.850,00 €
12	Deba	Deba ibaiko eta ibaiertzeko PEP	27.000,00 €
13	Itsasondo	Arbelaren PEP: Malkorra-Izarre	22.500,00 €
			279.157,50 €

Bigarrena.— Paisaiarako ekintza-planak egiteko diru-laguntzak ukatzea ondoren zerrendatutako udalei, eta, kasuan kasu, ukatzeko arrazoiak:

	Udala	Ukatzeko arrazoia
14	Etxebarri	Aurrekontuko kreditua amaitzea
15	Leintz-Gatzaga	Aurrekontuko kreditua amaitzea
16	Urizaharra	Ez da iritsi 5 puntuko puntuaziora
17	Agurain	Ez da iritsi 5 puntuko puntuaziora
18	Bermeo	Ez da iritsi 5 puntuko puntuaziora
19	Elgoibar	Ez da iritsi 5 puntuko puntuaziora
20	Orio	Ez da iritsi 5 puntuko puntuaziora
21	Arrieta	Ez da iritsi 5 puntuko puntuaziora

Hirugarrena.— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eskatzaile guztiei jakinarazteko ondorioetarako.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 9a.

Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordea,
MIREN IZASKUN IRIARTE IRURETA.